BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

4745

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, altzairu-galdaketarako ingurumeneko baimen bateratua esleitzen duena, Beasaingo udalerrian (Gipuzkoa) eta Fundiciones del Estanda SA enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 28an, Fundiciones del Estanda SA enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2006 Legeak xedatutakoaren arabera, Beasaingo udalerrian (Gipuzkoa) altzairua galdatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, Beasaingo Udalak 2006ko martxoaren 28an eman zuen aldeko hirigintza-txostena eta agiri tekniko hauek aurkeztu zituen:

– Ingurumeneko baimen bateratua (IBB) eskatzeko agiriak Proiektu Teknikoa (2006ko abendua).

– Ingurumeneko baimen bateratua (IBB) eskatzeko agiriak eranskinaK (1/2) (2006ko abendua).

– Ingurumeneko baimen bateratua (IBB) eskatzeko agiriak eranskinak (2/2) (2006ko abendua).

– Ingurumeneko baimen bateratua (IBB) eskatzeko agiriak laburpen ez teknikoa (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Fundiciones del Estanda SA enpresak jarduerarako 1994ko abenduaren 26ko baimena zuen, besteak beste. Baimen hori altzairuzko piezak galdatzeko jarduerarako eman zen. Ondoren, zabaltzeko baimena lortu zuen 1997ko martxoaren 17an, burdinazko eta altzairuzko piezak galdatzeko. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: hondakin arriskutsuak ekoizteko baimena, 2002ko ekainaren 28koa; hondakin geldoen ekoizleen erregistroko inskripzioa, 2000ko urriaren 17koa; hondakin-urak ibaira isurtzeko baimena, 2002ko ekainaren 24koa; eta atmosfera kutsa dezakeen instalazioaren ziurtagiria (egungo isuri atmosferikoen 17 fokuetatik 14tarako), hondakin, ur eta isuri atmosferikoen arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran eskuhartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez (Beasaingo Udalari, Gipuzkoako Ur Kontsortzioari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari).

2007ko apirilaren 4an eta 2007ko urriaren 4an ingurumen organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko urriaren 30ean osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Fundiciones del Estanda SA enpresak sustatutako proiektua egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan

2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegaziorik aurkeztu ez zela baieztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko otsailaren 8an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Beasaingo Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Osasun Publikoaren Zuzendariordetzari eta Iparraldeko Ur-konfederazioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko otsailaren 11n, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Fundiciones del Estanda SA enpresaren esku utzi zen, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen proposamena gehitu zen.

2008ko otsailaren 29an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen proposamenari buruz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplikatzekoa den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Fundiciones del Estanda SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena, Jabari Publiko Hidraulikora eta saneamendu-sistema integralera isurtzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin

eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Adierazitako aginduak aplikatuz, Fundiciones del Estanda SA enpresaren ingurumeneko baimen bateratuaren baitan daude Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapide guztiak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen agiri hauen edukiak hartu dira kontuan: 2005eko maiatzeko Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry BREF agiria, 2001eko abenduko Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems agiria, eta 2006ko uztaileko Reference Document on Best Available Techniques for Emissions from Storage agiria.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen proposamena sinatu eta Fundiciones del Estanda SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapide honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla Ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko otsailaren 8an emandako ebazpen proposamena; otsailaren 27ko 5/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Beasaingo udalerriko (Gipuzkoako lurralde historikoa) Anzizar kaleko 17. zenbakian eta IFK: A-28059269 zenbakia duen Fundiciones del Estanda SAenpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Beasaingo udalerrian altzairua galdatzeko jarduerarako, Ebazpen honen Bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean jasota dago, hain zuzen ere, 2.4 kategorian, «metal ferrosoen galdaketak, eguneko 20 tonatik gora ekoizteko ahalmena dutenak».

Enpresa industrialde batean dago, eta 25.000 m^2-ko azalera du guztira.

Fundiciones del Estanda SA enpresak 50 t/egun ekoizteko ahalmena du, eta altzairuzko pieza galdatuak fabrikatzen dira, batik bat automobilgintzarako, trenbidearen sektorerako, zementu/meatzaritzarako eta balbulagintzarako.

Ekoizte-prozesuaren etapa nagusiak hauek dira: moldekatzea (berdea, «pep-set» kimikoa) eta argintza, isurtzea, desondartzea eta akabera.

Moldekatzea bi prozesuren bidez egin daiteke: harea berdetan moldekatzea eta moldekatze kimikoa. Biek dute etapa bat osagaiak nahastu, molde erdiak fabrikatu, eredua bereizi, gainazala pintatu, kutxa erdiak lotu eta inbutuak (isurbideak) jartzeko.

Argintza-prozesua osagaiak (harea eta erretxinak) errota batean nahasiz hasten da. Ar-kutxa nahasketarekin bete ondoren, arra gaseztatze bidez polimerizatzen da. Jarraian, arra bere kutxatik bereizi, pintatu (behar bada) eta lehortu egiten da.

Txatarrak eta gehigarriak maiztasun ertaineko indukzio-labeetan urtzen dira. Instalazioak 4 kubeta elikatzen dituzten 3 multzo elektriko ditu. 1. multzoak 3 t-ko 2 kubeta elikatzen ditu aldizka (2.000 Kw-eko potentzia); 2. multzoak 2 t-ko kubeta 1 elikatzen du (1.200 Kw-eko potentzia), eta 3. multzoak 2 t-ko kubeta 1 (1.200 Kw-eko potentzia).

Galdatu ondoren, altzairua zali batera igarotzen da eta azkenik hareazko moldeetan isurtzen da. Metala solidotu ondoren, piezak desmoldekatu egiten dira, bahe dardarkari batean bibrazio bidez.

Horrela bereizitako hareak berreskuratu egiten dira eta harea-lanetako zirkuitura gehitzen dira berriz. Moldekatze kimikoko harea mekanikoki berreskuratzen da lehenik eta termikoki gero.

Ondoren, piezek zenbait akabera-prozesu igarotzen dituzte:

– Granailatzea.

– Ebakitzea.

– Tenperatura-tratamenduak: normalizazioa, suberaketa, iraoketa eta tenplaketa.

– Esmerilaketa eta bizar-kentzea.

– Berreskuratze-prozesu osagarriak: birkargatzeko soldadura.

– Mekanizazioa: torneaketa, fresaketa, zulaketa, orekatzea.

Instalazio eta ekipoen jardunerako erabilitako energia-iturriak energia elektrikoa, gas naturala eta gasolioa (orgatiletarako) dira.

Fundiciones del Estanda SA enpresak ekoizte-prozesuan sortutako isuri atmosferiko guztiak bildu eta bideratzen ditu 15 foku zarraturen bidez. Isuri horiek moldekatzeko, argintzako, galdaketako, desmoldekatzeko eta akaberetako (granailatzea eta tenperatura-tratamendua) etapetakoak dira. Gainera, badira konfort-berogailuko bi foku (aldagela eta dutxetarako ur sanitarioko galdara, eta tailer mekanikorako berogailu-instalazioa), eta foku ez-sistematiko bat, horren jardun-erregimenaren arabera (multzo elektrogenoa).

Bestetik, isuri barreiatuak sortzen dituzte ibilgailuek.

Horretaz gain, hondakin-urak isurtzeko 6 puntu daude: hozteko instalazioak (tenplatzeko tenperatura-tratamendua, zeharkako hoztea, urtzeko labeak, moldekatze kimikoa eta konpresore-

gela), ultrairagazketa bidezko ur- eta olio-bereizgailua, eta aldagelak eta komunak. Ur sanitarioak Ormaiztegiko ur-kolektorera isurtzen dira gaur egun, puntu bakar batetik. Gainerako hondakinurak Eztanda ibaira husten dira.

Jarduera garatzean hondakin arriskutsuak zein hondakin ez-arriskutsuak sortzen dira. Horrela, hondakin arriskutsuak sortzen dira moldekatzeko eta argintzako prozesuan (ur-errezeletako lohiak), azal-akaberan (taladrina agortuak), galdaketan (galdaketako hautsak, mahuka-iragazki erabiliak), zerbitzu orokorretan (olio erabiliak, berun/azidozko bateria agortuak, Ni-Cd-zko bateriak, merkurioa duten pilak, fluoreszenteak eta merkurioa duten bestelako hondakinak, ekipo-garbiketako ur azidoak, II. taldeko hondakin sanitarioak), hondakinak biltzean (metalezko ontzi hutsak, plastikozko ontzi hutsak, aerosol hutsak, HC-z bustitako trapuak) eta tenplatzeko tenperatura-tratamenduan (tenplatzeko olio agortua, polimero agortua duen ura).

Hondakin ez-arriskutsuak zenbait etapatan sortzen dira: desmoldekatzean (hareak), galdaketan (zepak), akaberetan (bizar-hautsa, tenplaketa-zuloko axala, metal-hautsa, esmeril-harriak), zerbitzu orokorretan (zoru-garbiketako xehekiak eta lohiak, metal-hondarrak/txatarra, palet-hondarrak/zura, papera eta kartoia, zaborra) eta hozte-dorrean (scrubber-aren garbiketa-urak).

Proiektuak, besteak beste, teknika erabilgarri onenak izan daitezkeen ondorengo neurriak ditu, 2005eko maiatzeko «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» BREF agirian, 2001eko abenduko Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems agirian, eta 2005eko urtarrileko Reference Document on Best Available Techniques for Emissions from Storage agirian jasotakoaren arabera: txatarra estalita biltegiratzea; txatarra garbiak erabiltzea; maiztasun ertaineko indukzio-labeak erabiltzea; galdaketa-ziklo osoko xurgapena xurgapen-kanpaien eta lehorreko iragazki bidez; isurtzeko, hozteko eta desmoldekatzeko lerroak itxi, bildu eta araztea; harea-lanetako prozesuak ixtea eta isuriak xurgatu eta araztea eta harea-berreskuratze primarioa (berreskuratze mekanikoa eta hezean iragaztea); nahasgailua kontrolatzeko neurriak ezartzea; biltzea eta araztea moldekatze kimikoan; hareak berreskuratzea; aminak berreskuratzea; granailatzea bildu eta araztea; ebaketa aire-arkuz bildu eta araztea; tenperatura-tratamenduetan gas naturala erabiltzea; errekuntza kontrolatzeko ekipoak; instalazio zaratatsuak ixtea; tximinia eta hodietan isolamendua/isilgailuak jartzea; gauean garraioa ezabatzea; isuri barreiatuak zoruak aldizka garbituz murriztea; kanpoko ateak ixtea eta moldekatzean eta argintzan xurgatu eta iragaztea; tanta-bereizgailua duen hozteko zirkuitu itxia; legionella kontrolatu eta desinfektatzea, etab.

Bigarrena.– Fundiciones del Estanda SA enpresak Beasaingo udalerrian altzairu-galdaketa ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, Fundiciones del Estanda SA enpresak aldaketa horien berri emango dio Ingurumen Sailburuordetzari.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Altzairu-galdaketako instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Altzairu-galdaketako instalazioak ondoko fokuak ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barne-diametroa (mm)	Katalogazioa Taldea
1	20000298-01	Aire arkuko 1. Ebaketa (bizar-kentzea)	4,5	506	C
2	20000298-02	Aire arkuko 2. Ebaketa (bizar-kentzea)	4,5	506	C
3	20000298-03	Urbar desmoldekatzea	12	1.000	C
4	20000298-04	Moldekatze berdea: moldeak pintatzea 1	12,5	550	B
5	20000298-05	Moldekatze berdea: moldeak pintatzea 2	12,5	550	B
6	20000298-06	Urtzeko labeak	8,7	680	B
7	20000298-07	Desmoldekatze kimikoa eta harea lanak	15	1.250	C
8	20000298-08	Küttner harea hozkailua (Harea berdeen hozkailua)	13,2	600	C
9	20000298-09	Harea berreskuratze termikoa (Harea kimikoen berreskuratze termikoa)	12,7	350	C
10	20000298-10	Moldekatze kimikoa eskuz pintatzea	12	700	B
11	20000298-11	Moldekatze kimikoko Lehortzeko berogailua (Moldekatze kimikoko tanto-lehortzeko berogailua)	12	230	B
12	20000298-12	Isurbideen shell moulding-a	11,2	440	C
13	20000298-13	Errail bakarreko pangborn granailatzeko makina	10,2	580	C
14	20000298-14	Xurgapen orokorra (argintza), arrak lehortzeko labea edo berogailua eta arrak pintatzea	4,5	600	B
15	20000298-15	Tenplaketa oliotan hoztea	12	1.000	C
16D	20000298-16D	Multzo elektrogenoa			Foku ez-sistematikoa

Sustatzaileak aurreko taulan identifikatutako foku bakoitzaren UTM koordenatuak igorri behar ditu Ingurumen Sailburuordetzara.

Bestetik, multzo elektrogenoari lotutako fokuaren garaiera eta barne-diametroa adierazi behar dira.

Gainera, partikula solidoen isuri barreiatu etenak sortzen dira kutxa-kamioi baten garraiolanetan.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
2	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
3	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
4	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
5	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
6	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
7	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
8	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
9	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
10	Partikula solidoak (PS)	150 mg/Nm^3
11	Partikula solidoak (PS)	150 mg/Nm^3
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
12	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
13	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
14	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
	Aminak	20 mg/Nm^3
15	Partikula solidoak (PS)	150 mg/Nm^3
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm

1., 2., 6. eta 13. fokuetarako egokitze-plan bat aurkeztu beharko da. Partikula solidoak (PS) isurtzeko 35 mg/Nm^3 arteko muga-balioak baimenduko dira, arazketa-sistema egoki bat duen egokitze-plana inplementatu arte, eta orduan parametro horren gehienezko isuria 20 mg/Nm^3-koa izango da.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei dagokienez (KOG gisa neurtutakoak), ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu eta ordubeteko neurketetako batek ere isurtzeko muga-balioak 1,5 faktorea baino kopuru handiagoan gainditzen ez badu.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondar-gasak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira, Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isuri barreiatuak murriztearren, instalazioak egunero eta astero garbituko dira, eta informazio hori agiri honen D.3 ataleko prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan azaldu beharko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera eta ibilgura isurtzeko baldintzak

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: altzairu-galdaketa.

Jarduera-taldea: metalak.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-27.52.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzaileare n kategoria	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak
1	Industrialak	Tenplatzeko tenperatura-tratamendua	Eztanda ibaia	Oria ibaia	I	X: 563.835 Y: 4.766.439
2	Industrialak	Zirkuitu irekiko zeharkako hoztea	Eztanda ibaia	Oria ibaia	I	X: 563.805 Y: 4.766.464
3	Industrialak	Urtzeko labeen hozte-dorreko purgak	Eztanda ibaia	Oria ibaia	I	X: 563.785 Y: 4.766.511
4	Industrialak	Moldekatze kimikoko hozte-dorreko purgak	Eztanda ibaia	Oria ibaia	I	X: 563.785 Y: 4.766.537
		Konpresore-gelako eta ultrairagazketa bidezko ur- eta olio-bereizgailuaren instalazioko hozte-dorreko purgak	Eztanda ibaia	Oria ibaia	I	
5	Sanitarioak	Aldagelak eta bulegoetako komunak	Ormaiztegiko ur-kolektorea	---	---	
6	Sanitarioak	Aldagelak eta tailerretako komunak	Ormaiztegiko ur-kolektorea	---	---	

Kolektorearen UTM koordenatuak aurkeztu beharko dira.

Terrazek, andelek, eta abarrek gainezka egiteagatiko isuriak ez dira baimentzen, ezkutuko purga bailirateke. Horrelakorik gertatuz gero, jakinarazi eta isurtzeko dagokien baimena eskatu beharko da.

B.1.2.2.– Ibilgura isurtzeko gehienezko emariak eta bolumenak:

a) 1. isurketa: tenplatzeko tenperatura-tratamenduko hozteko industria-urak

Orduko puntako emaria	1,7 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	42 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	125 m^3/urte

b) 2. isurketa: zeharkako hozteko urak.

Eguneko gehienezko bolumena	11 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	4000 m^3/urte

c) 3. isurketa: urtzeko labeak hozteko urak (purgak).

Eguneko gehienezko bolumena	1,9 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	411 m^3/urte

d) 4.1 isurketa: moldekatze kimikoko hozteko urak (purgak).

Eguneko gehienezko bolumena	1,2 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	250 m^3/urte

e) 4,2. isurketa: konpresore-gelako hozteko urak (purgak) eta ultrairagazketa bidezko ur- eta olio-bereizgailuaren.instalazioko industria-urak.

Eguneko gehienezko bolumena	0,90 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	211 m^3/urte

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Saneamendu-sarera egindako isurien ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira bakarrik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

a) 1. isurketa: tenplatzeko tenperatura-tratamenduko hozteko industria-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5 mg/l
Solido esekiak (SE)	35 mg/l (*)
Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	80 mg/l
Burdina (Fe)	2 mg/l
Guztizko fosforoa (Guztizko P)	3 mg/l
Olioak eta koipeak	20 mg/l

* Ibaiaren balioekiko gehikuntza.

b) 2. isurketa: zeharkako hozteko industria-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5 mg/l
Solido esekiak (SE)	35 mg/l (*)
Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	80 mg/l
Burdina (Fe)	2 mg/l
Guztizko fosforoa (Guztizko P)	3 mg/l
Olioak eta koipeak	20 mg/l

* Ibaiaren balioekiko gehikuntza.

c) 3. isurketa: urtzeko labeak hozteko industria-urak (purgak).

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5 mg/l
Solido esekiak (SE)	50 mg/l
Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	80 mg/l
Burdina (Fe)	2 mg/l
Zinka (Zn)	2 mg/l
Guztizko fosforoa (Guztizko P)	3 mg/l
Olioak eta koipeak	20 mg/l
Konposatu organiko halogenatuak (AOX)	0,3 mg/l
Hondar-kloro aske baliokidea (*)	0,3 mg/l

* Bromoa bezalako bestelako oxidatzaileak erabiliz gero, kloro askearen baliokidea adieraziko da.

d) 4.1 eta 4.2 isuriak: moldekatze kimikoko hozteko (purgak), konpresore-gelako hozteko industria-urak (purgak) eta ultrairagazketa bidezko ur eta olio-bereizgailuaren instalazioko industria-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5 mg/l
Solido esekiak (SE)	50 mg/l
Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK)	80 mg/l
Burdina (Fe)	2 mg/l
Zinka (Zn)	2 mg/l
Guztizko fosforoa (Guztizko P)	3 mg/l
Olioak eta koipeak	20 mg/l
Konposatu organiko halogenatuak (AOX)	0,3 mg/l
Hondar-kloro aske baliokidea (*)	0,3 mg/l

* Bromoa bezalako bestelako oxidatzaileak erabiliz gero, kloro askearen baliokidea adieraziko da.

e) 5. isurketa: aldageletako eta tailerretako komunetako ur sanitarioak

Langileen zerbitzu higienikoen ura kolektore nagusira isurtzeak ere «Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren kolektorera isurtzea arautzen duen erregelamenduan» jasotako mugak eta baldintza bete beharko ditu, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztapen, aldaketa edo salbuespenekin.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Metal-kontzentrazioak elementu horien «guztizko» edukiari dagozkie.

Tenperatura: ubidearen tenperatura ezin da 1,5 baino gehiago areagotu.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak kasuan kasu tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen horrek ez du baldintza honetan berariaz adierazitakoak ez diren beste substantzien isurketa onartzen, batez ere maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren substantzia arriskutsuak. Errege Dekretu horren bidez, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VIII. tituluak garatzen dituen jabari publiko hidraulikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen da.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek zerbitzu sanitarioetako hondakin-urak saneamendu-sare nagusirako konexioa hartzen dute barne funtsean.

Isurtzeko mugak betetzen ez direla ikusiz gero, Fundiciones del Estanda SA enpresak behar beste neurri zuzentzaile hartuko ditu isurketa baimendutako ezaugarrietara egokitzeko. Neurriak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isurketak kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak

diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdarak purgatzetik sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

B.1.2.5.– Isurien kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, hauxe da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurketen Kontrol Kanona = V x Pu.

Pu = Po x Km.

Km = K2 x K3 x K4.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

Pu = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

Po = Oinarrizko prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

Km = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

K2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

K3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isurketa: tenplatzeko tenperatura-tratamenduko hozteko industria-urak.

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Industriala K_2: 2. mota K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria-eremua: I	V = 125 m^3 / urte P_o = 0,03005 euro/m^3 K_2 = 1,0 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

Km = 1,0 x 0,5 x 1,25 = 0,6250.

Pu = 0,6250 x 0,03005 = 0,018781 euro/m^3.

2. isurketa: Zeharkako hozteko urak.

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Hozketa Km:	V = 4.000 m^3 / urte P_o = 0,03005 euro/m^3 Km = 0,06

Pu = 0,06 x 0,03005 = 0,001803 euro/m^3.

3. isurketa: urtzeko labeak hozteko urak (purgak) eta 4.1 eta 4.2 isurketak: moldekatze kimikoko hozteko (purgak), konpresore-gelako hozteko (purgak) industria-urak eta ultrairagazketa bidezko ur– eta olio-bereizgailuaren instalazioko industria-urak

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Industriala K_2: Gai arriskutsuak dituena K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria-eremua: I	V = 411 + 250 + 211= 872 m^3 / urte P_o = 0,03005 euro/m^3 K_2 = 1,28 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

Km = 1,28 x 0,5 x 1,25 = 0,80.

Pu = 0,80 x 0,03005 = 0,024040 euro/m^3.

Isurien kontrol-kanona = 125 x 0,018781 + 4.000 x 0,001803 + 872 x 0,024040 = 30,52 euro/urte.

Zenbateko horrek 2007/01/01etik izango ditu eraginak eta ez da aldatuko isurtzeko baimena edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, titularrari urte horri dagokion likidazioa bidaliko zaio.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen

kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Beasaingo Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

• 1. Prozesua: «moldekatzea eta argintza».

– 1. hondakina: «ur errezeletako lohiak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/1/1.

Hondakinaren kodea: Q8//D13//P12//C41//H14//A231//B3144.

HEZ: 080115.

Urtean sortutako kantitatea: 1.742 kg.

Pintatzeko kabinako urak birjartzean sortzen da. Disolbatzaile– eta pintura-hondarrak dituen ura da. Hondakin hori identifikatzeko bidoian biltzen da instalazioa garbitzean, eta kudeatzaile baimenduari zuzenean entregatzen zaio.

• 2. Prozesua: «gainazalaren akabera».

– 1. hondakina: «taladrina agortuak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/2/1.

Hondakinaren kodea: Q8//D9//L9//C51//H5//A231//B3141.

HEZ: 120109.

Urtean sortutako kantitatea: 1.378 kg.

Mekanizazioan erabilitako emultsioak birjartzean sortzen da.

Emultsio oliotsu bat da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

• 3. Prozesua: «gas efluenteak araztea».

– 1. hondakina: «galdaketako hautsak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/3/1.

Hondakinaren kodea: Q9//D15//S25//C7/18//H14//A231//B0011.

HEZ: 100207.

Urtean sortutako kantitatea: 1.768 kg.

Urtze-gasak filtratzen direlako sortzen da. Konposizioan hainbat metal dituzten hautsak dira. Hondakinarentzat identifikatutako big-bagean biltzen da, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

– 2. hondakina: «mahuka iragazki erabiliak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/3/2.

Hondakinaren kodea: Q9//D15//S35//C7/18//H14//A231//B0011.

HEZ: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: 248 kg.

Gasak arazteko sistemaren iragazkietako mahukak aldatzean sortzen da. Partikulak dituzten mahukak dira. Hondakinarentzat identifikatutako big-bagean edo bidoian biltzen da, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

• 4. Prozesua: «zerbitzu orokorrak».

– 1. hondakina: «olio erabiliak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/4/1.

Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5-6//A231//B0019.

HEZ: 130802.

Urtean sortutako kantitatea: 1.533 kg.

Makinetako olioa, konpresoreetako purgak eta ebaketa-olioak birjartzean sortzen da. Olio hidrauliko, mekaniko eta ebaketa-olio erabiliak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

– 2. hondakina: «berun/azidozko bateria agortuak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/4/2.

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8//A231//B0019.

HEZ: 160601.

Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Bateriak birjartzeko eragiketetan sortzen da, Mantentze-lan Orokorra azpiprozesuan. Beruna eta disoluzio azidoa duten bateria erabiliak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da hondakin-biltegian.

– 3. hondakina: «NI-CD-zko bateriak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/4/3.

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C5/11//H14//A231//B0019.

HEZ: 160602.

Urtean sortutako kantitatea: 1-3 kg.

Metagailu agortuak biltzean sortzen da, Mantentze-lan Orokorra azpiprozesuan. Nikela eta/edo kadmioa dute.

Hondakin hori identifikatzeko kaxetan biltzen da sortzen den postuetan; edukiontzi horretatik zuzenean ateratzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

– 4. hondakina: «merkurioa duten pilak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/4/4.

Hondakinaren kodea: Q6//R4//S37//C16//H6//A231//B0019.

HEZ: 160603.

Urtean sortutako kantitatea: 11 kg.

Pila agortuak biltzean sortzen da, Mantentze-lan Orokorren azpiprozesuan. Merkurioa duten pila erabiliak dira.

Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen da sortzen den postuetan; edukiontzi horretatik zuzenean ateratzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

– 5. hondakina: «hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten bestelako hondakinak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/4/5.

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14//A231//B0019.

HEZ: 200121.

Urtean sortutako kantitatea: 70 kg.

Lanparak birjartzean sortzen da, Mantentze-lan Orokorren azpiprozesuan. Merkurioa duten lanpara erabiliak dira. Hondakinarentzat identifikatutako kaxetan biltzen da; kaxa horietatik zuzenean ateratzen da kudeatzaile baimendu bati bidaltzeko.

– 6. hondakina: «ekipo garbiketako ur azidoak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/4/6.

Hondakinaren kodea: Q5//D13//L27//C23//H8//A231//B0005.

HEZ: 060105.

Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Ekipoak garbitzean sortzen da; azido nitrikoa du.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da ekoizpen-instalazioan; horretatik zuzenean ateratzen da kudeatzaile baimendu bati bidaltzeko.

– 7. hondakina: «II. taldeko hondakin sanitarioak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/4/7.

Hondakinaren kodea: Q16//D15//S1//C35//H9//A231//B0019.

HEZ: 180103.

Urtean sortutako kantitatea: 10,08 kg.

Zerbitzu Medikoaren azpiprozesuan sortzen da; hondakin ebakitzaile eta zorrotzak dira. Edukiontzi hermetiko batean biltzen da, botikinean; edukiontzi horretatik atera eta zuzenean ematen zaio kudeatzaile baimenduari.

• 5. Prozesua: «hondakinak elkartzea».

– 1. hondakina: «metalezko ontzi hutsak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/5/1.

Hondakinaren kodea: Q5//D13//S36//C41/51//H5//A231//B9711.

HEZ: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: 3.565 kg.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; gai arriskutsuen hondarrak dituzten metalezko ontziak dira, edo horiez kutsatuak; orokorrean erretxinak, pinturak, disolbatzaileak, olioak eta taladrina eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag batean biltzen da, sortzen den postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

– 2. hondakina: «plastikozko ontzi hutsak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/5/2.

Hondakinaren kodea: Q5//D13//S36//C41//H5//A231//B9711.

HEZ: 150110.

Urtean ekoitzitako kantitatea: 80 kg.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; gai arriskutsuen hondarrak dituzten plastikozko ontziak dira, edo horiez kutsatuak; orokorrean erretxinak, pinturak, eta disolbatzaileak eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag batean biltzen da, sortzen den postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

– 3. hondakina: «aerosol hutsak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/5/3.

Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C41//H3B-5//A231//B9711.

HEZ: 160504.

Urtean ekoitzitako kantitatea: 103 kg.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; gai arriskutsuen hondarrak dituzten aerosolak dira, edo horiez kutsatuak; orokorrean likido sarkorrak eta desmoldekatzaileak eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag batean biltzen da, sortzen den postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

– 4. hondakina: «HC-Z bustitako trapuak».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/5/4.

Hondakinaren kodea: Q5//D13//S34/40//C41/51//H5//A231//B9711.

HEZ: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: 189 kg.

Xurgatzaileak eta ehunkiak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan kodetzen dira; batik bat olioz bustitako trapuak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin- biltegira eramaten da.

• 6. Prozesua: «galdaketa».

– 1. hondakina: «tenplatzeko olio agortua».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/6/1.

Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5-6//A231//B3107.

HEZ: 130310.

Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Tenplatzeko tenperatura-tratamenduetako olio mineral parafiniko berotu eta erreak dira. 10.000 litroko metalezko andel batean biltzen da.

– 2. hondakina: «polimero agortua duen ura».

Identifikazioa: A28059269/2000007495/6/2.

Hondakinaren kodea: Q7//D13//L20//C24-51//H4//A231//B3107.

HEZ: 070101 .

Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Tenplatzeko tenperatura-tratamenduetako polimero organikoen ur-disoluzioak dira. Kudeatzaile baimenduak zuzenean biltzen du sortzen den puntuan.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) «polimero agortua duen ura» hondakina zuzenean jaso behar da instalazioan sortzen den andeletatik, aurretik ontziratu eta biltegiratu gabe, kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

c) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

e) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta biltegiratzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

f) Hondakin arriskutsuak biltegiratzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

g) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

h) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Fundiciones del Estanda SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

i) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

j) Fundiciones del Estanda SA enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

k) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Fundiciones del Estanda SA enpresak.

l) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

m) Fundiciones del Estanda SA enpresak poliklorobifeniloak dituzten edo izan ditzaketen gailuak dituen bitartean, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan eta hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan adierazitako baldintzak.

n) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Fundiciones del Estanda SA enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

o) Fundiciones del Estanda SA enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

p) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

q) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Fundiciones del Estanda SA enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

r) Aurreko g) eta h) (kudeatzaileak EAEn daudenean), o) eta p) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

s) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Fundiciones del Estanda SA enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egitean segurtasun– eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	HEZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (kg/urtea)
Metal-hondarrak/txatarra	100200	Zerbitzu Orokorrak	11.000
Metal-hautsa	100208	Bizar-kentzea, soldadura	5.000
Bizar-hautsa	100210	Akaberak (bizar-kentzea)	652.000
Tenplaketa-zuloko axala	100210	Akaberak (tenperatura-tratamenduak)	1.000
Scrubberraren garbiketa-urak	100214	Neutralizazio-dorrea	5.000
Zepak	100903	Galdaketa	533.000
Hareak	100906	Desmoldekatzea	4.746.000
Xehekiak eta lohiak	100906	Zerbitzu orokorrak (garbiketa)	1.300
Esmeril-harriak	120121	Bizar-kentzea	3.500
Palet-hondarrak/Zura	150103	Zerbitzu orokorrak (paketatzea)	500
Papera eta kartoia	150101	Zerbitzu orokorrak (paketatzea)	300
Zaborra	200301	Zerbitzu Orokorrak	1.000

a) «Xehekiak eta lohiak», «hareak» eta «scrubberraren garbiketa-urak» hondakinen hurrengo hustuketa egin aurretik, hondakin horiek gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan ispilu-sarrera dutenez, hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz hustu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela ezartzen bada, Ebazpen honetako B.1.3.1 atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) Ebazpen honen B.1.3 atalak hondakinen kudeaketarako printzipio hierarkikoei buruz dioenaren arabera, harea berdez moldekatzeko prozesuan sortutako hareak eta harea-lanetako jalkin xeheak

kudeatzeko, baliotu egingo dira eta ez dira zabortegian utziko. Baliotzea ez beste modu batera egiten bada kudeaketa, Sailburuordetza honen aurrean aurkeztu beharko da proposamena.

c) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu bati.

d) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

e) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta Ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Fundiciones del Estanda SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

f) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

g) Erregistro bat egingo da, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

h) Aurreko e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta g) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Fundiciones del Estanda SA enpresak txirbil inpregnatuen biltegian zarratu beharko du taladrina.

Bestetik, jarraibide hauek kontuan hartuko dira lurzoruaren gaineko eragina murrizteko, honelako neurrien bidez:

– Hautsezko materialak arrastatzea murriztuko da, honelako sistema orokorrak ezarriz:

a) Hautsezko gaiak siloetan, pabiloi barruan, edo horrelakorik ezean, haizetik hobekien babestutako guneetan biltegiratu.

b) Haize gogorra dabilenean hautsezko solidoak manipulatzea saihestu.

c) Materialak paletatik deskargatzean, garaiera mugatu.

– Isurketek, jarioek edo ihesek kaltetu ditzaketen lur zatiko gainazal guztiak zolatuak eta irazgaiztuak egongo dira.

– Isurketak, jarioak edo ihesak eragozteko moduan biltegiratuko dira lehengaiak, erregaiak eta produktuak.

Era horretan, ontzi mugikorretan zein finkotan biltegiratutako produktu kimiko likido guztiek (batez ere gai eta prestakin arriskutsuak) eta gordetako erregai likidoek jarioak biltzeko sistema izango dute.

Produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudiak eragindako biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte. Petrolio-instalazioei buruz indarrean dagoen araudiak eragindako biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte. Egiaztapen horiek egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

– Hondakinak B.1.3.1 eta B.1.3.2 ataletan adierazitako jarraibideen arabera biltegiratuko dira.

– Hondakin metalikoak barruan edo, hala ezin bada, estalkipean biltegiratuko dira, lixibiatuak lurzorura eta uretara ahalik eta gutxien iragazteko.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

B.1.6.– Paisaiari buruzko baldintzak.

Paisaia babesteko, besteak beste jarduera hauek proposatzen dira:

– pantailak, landare-estaldura, etab. erabiltzea.

– kanpoaldea eta bideak garbitzea.

– produktu kimikoak eta instalazioen kanpoaldetik hautematen ez diren hondakinak biltegiratzea.

– etxaurre eta mugen mantentze-lanak.

– eraikitzeko mugak errespetatzea (azaleran eta garaieran).

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Fundiciones del Estanda SA enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	20000298-01	Aire arkuko 1. Ebaketa (bizar-kentzea)	Guztizko partikulak	5 urtean behin
2	20000298-02	Aire arkuko 2. Ebaketa (bizar-kentzea)	Guztizko partikulak	5 urtean behin
3	20000298-03	Urbar desmoldekatzea	Guztizko partikulak	3 urtean behin
4	20000298-04	Moldekatze berdea: moldeak pintatzea 1	Guztizko partikulak Konposatu organiko hegazkorrak (koh)	3 urtean behin
5	20000298-05	Moldekatze berdea: moldeak pintatzea 2	Guztizko partikulak Konposatu organiko hegazkorrak (koh)	3 urtean behin
6	20000298-06	Urtzeko labeak	Guztizko partikulak	Urtekoa
			Dioxinak eta furanoak (PKDD/PKDF)	Lehenengo urtean
7	20000298-07	Desmoldekatze kimikoa eta harea lanak	Guztizko partikulak	3 urtean behin
8	20000298-08	Küttner harea hozkailua (Harea berdeen hozkailua)	Guztizko partikulak Konposatu Organiko Hegazkorrak (KOH)	5 urtean behin
9	20000298-09	Harea berreskuratze termikoa (Harea kimikoen berreskuratze termikoa)	Guztizko partikulak Karbono monoxidoa Nitrogeno oxidoak	3 urtean behin
10	20000298-10	Moldekatze kimikoa eskuz pintatzea	Guztizko partikulak Konposatu organiko hegazkorrak (koh)	3 urtean behin
11	20000298-11	Moldekatze kimikoko lehortzeko berogailua (Moldekatze kimikoko tanto-lehortzeko berogailua)	Guztizko partikulak Karbono monoxidoa Nitrogeno oxidoak Konposatu Organiko Hegazkorrak (KOH)	3 urtean behin
12	20000298-12	Isurbideen shell moulding-a	Guztizko partikulak Karbono monoxidoa Nitrogeno oxidoak	5 urtean behin
13	20000298-13	Errail bakarreko pangborn granailatzeko makina	Guztizko partikulak	5 urtean behin
14	20000298-14	Xurgapen orokorra (argintza), arrak lehortzeko labea edo berogailua eta arrak pintatzea	Guztizko partikulak Konposatu organiko hegazkorrak (koh) Aminak	3 urtean behin
15	20000298-15	Tenplaketa oliotan hoztea	Guztizko partikulak Karbono monoxidoa Nitrogeno oxidoak Konposatu organiko hegazkorrak (koh)	5 urtean behin

b) Aurreko atalean aipatutako aldizkako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu batek (KEB) egin beharko ditu (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurtzeen kontrolek eta neurketa-baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak Ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten

diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskapenak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio hori eguneratuta egongo da, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
1	Tenplatzeko tenperatura-tratamendua	X: 563.834,92 Y: 4.766.439,23	pH-a Solido esekiak (SE) Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK) Burdina (Fe) Guztizko fosforoa (Guztizko P) Olioak eta koipeak	Urtekoa	Erakunde homologatua
2	Zeharkako hoztea	X: 563.804,97 Y: 4.766.464,65	pH-a Solido esekiak (SE) Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK) Burdina (Fe) Guztizko fosforoa (Guztizko P) Olioak eta koipeak	Sei hilerokoa	Erakunde homologatua
3	Urtzeko labeen hozte-dorreko purgak	X: 563.784,55 Y: 4.766.510,6	pH-a Solido esekiak (SE) Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK) Burdina (Fe) Zinka (Zn) Guztizko fosforoa (Guztizko P) Olioak eta koipeak Konposatu organiko halogenatuak (AOX) Hondar-kloro aske baliokidea (*)	Urtekoa	Erakunde homologatua
Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
4.1 eta 4.2	Moldekatze kimikoko hozte-dorreko purgak eta konpresore gelako eta ultrairagazketa bidezko ur- eta olio-bereizgailuaren instalazioko hozte-dorreko purgak	Moldekatze kimikoko hozte-dorreko purgak X: 563.785,23 Y: 4.766.537,49 Konpresore gelako eta ultrairagazketa bidezko ur- eta olio-bereizgailuaren instalazioko hozte-dorreko purgak: X: 563.785,23 Y: 4.766.540,66	pH-a Solido esekiak (SE) Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK) Burdina (Fe) Zinka (Zn) Guztizko fosforoa (Guztizko P) Olioak eta koipeak Konposatu organiko halogenatuak (AOX) Hondar-kloro aske baliokidea (*)	Urtekoa	Erakunde homologatua

* Bromoa bezalako bestelako oxidatzaileak erabiliz gero, kloro askearen baliokidea adieraziko da.

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Erregelamenduaren 255. artikulua) eta aurreko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean. Aipatutako maiztasunarekin, aldi bakoitzean efluenteak ezaugarri baimenduekiko dituen balizko desbideratzeei, horien kausei eta zuzentzeko hartutako neurriei buruzko gorabeheren adierazpen bat erantsiko da.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Isurketan lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak dauden ala ez dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan ekoizte-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Metal likidoa	T	Metal likidoa	T
Lehengai eta osagarrien kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: - Txatarrak, - Lingoteak - Ferroaleazioak	T	Lehengaien guztizko kontsumoa: - Txatarrak, - Lingoteak - Ferroaleazioak	T
Energia kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	m^3	Gas naturalaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/kwh (%)
	Elektrizitate-kontsumoa	Kwh	Koke-kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/kwh (%)
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3	Ur-kontsumoa	m^3
Uretara egindako isurketak	Industria-isuriak/helmuga	m^3	Industria-isuriak/helmuga	m^3
	Euri-uren isuria/helmuga	m^3	Euri-uren isuria/helmuga	m^3
	Isuritako gai arriskutsuak	(kontzentrazioa) 3 baino gehiago badaude	Isuritako gai arriskutsuak	(kontzentrazioa)
Isuri atmosferikoak	Partikula solidoen isurketak (gutxienekoa, gehienezkoa eta batez bestekoa, lagin kopurua) / parametro honen prozesu nagusiari lotutako foku kontrolatu bakoitzeko	Mg/n m^3	Partikula solidoen isurketa	Mg/n m^3
	Partikula solidoen isurketa	Kg	Partikula solidoen isurketa	Kg
			Partikula solidoen guztizko isurketa/metal likidoa	Kg/t
	Kog gisa isuritako aminak (max, min, batez bestekoa, lagin kop.)/ parametro honen prozesu nagusiari lotutako foku kontrolatu bakoitzeko	Mg/n m^3	Kog gisa isuritako aminak	Mg/n m^3
	Guztizko amina-isurketak	Kg	Guztizko amina-isurketak	Kg
Hondakinak	Arazketa-sistemetan bildutako jalkin xeheen kantitatea	T	Arazketa-sistemetan bildutako jalkin xeheen kantitatea / metal likidoa	T/t
	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua	T	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua	T
			1. Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua/metal likidoa	T/t
	Hondakin arriskutsu baliotuak	T	Hondakin arriskutsu baliotuak / sortutako hondakin arriskutsuak	T/t (%)
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	T	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	T
			1. Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua/metal likidoa	T/t
	Hondakin ez arriskutsu baliotuak	T	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / sortutako hondakin ez-arriskutsuak (konposizio-hondarrak, …)	T/t (%)
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / guztizko hondakinak	T/t (%)
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua	Kopurua/urte

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea
Iks	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/ez Zein/ urtea	Ekoscan/ urte Eta/edo Iso14001/ urte Eta/edo Emas/ urte	Bai/ez Zein/ urtea

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamena Ebazpen honen C.6 atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa urtero egingo da eta ingurumena zaintzeko programako emaitzekin batera, txosten bat aurkeztuko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6. –Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta Ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak edo analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera honako hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27.520 epigrafea «Altzairu-galdaketa»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Fundiciones del Estanda SA enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako dokumentazioan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, erregaiak, gai arriskutsuak eta zepak eta, orokorrean, fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

Hauts-produktuak biltegiratzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

Ingurumen Sailburuordetzara kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura bat bidaliko da.

i) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

j) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu horretan, baldintza hauek azpimarratu behar dira:

– Estazioan erroilu erako edo gai pikortatuzko, edo antzeko berariazko gai xurgatzailea egongo da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

– Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

– Ebazpen honen B.1.4 atalean deskribatutako jarduketez gain, gasolioa biltegiratzeko eta maneiatzeko instalazioak behar den bezala isolatuko dira, haustura, ustekabeko gainezkatze, eta abarrengatik gerta daitezkeen jarioei aurre egiteko.

k) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

l) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

– Gertakari-mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den .

– Iraupena.

– Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.

– Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.

– Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

m) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak

hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Fundiciones del Estanda SA enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi-net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, Ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3 atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio Ebazpen honetako Bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.1.2 (Isuri atmosferikoen isurtze-fokuen UTM koordenatuak, multzo elektrogenoaren fokuaren garaiera eta barne-diametroa); B.1.1.3 (1., 2., 6. eta 13. fokuen egokitzapen-plana); B.1.2.1 (Ur higienikoei lotutako isurtze-fokuen UTM koordenatuak); B.1.3.1 (Hondakin hauen sortutako kopuruak: «berun/azidozko bateria agortuak», «ekipo-garbiketako ur azidoak», «tenplatzeko olio agortua», «polimero agortua duen ura». Kudeaketa justifikatzea «galdaketako hautsak», «metalezko ontzi hutsak» eta «plastikozko ontzi hutsak» hondakinak baliotuz); B.1.3.1.g (Sortutako hondakin arriskutsuak onartzeko agiriak); B.1.3.1.p (Hondakin arriskutsuak erregistratzeko eredua); B.1.3.2.e (Sortutako hondakin ez-arriskutsuak onartzeko agiriak); B.1.3.2.g (hondakin ez-arriskutsuak erregistratzeko eredua); B.1.4; (Lurzorua babesteko neurriak); C.1 (Isuri atmosferikoen kontrola, behar bada); C.1.1 (Isuri atmosferikoak erregistratzeko

eredua); C.4 (Zarata neurtzeko proposamen zehatza); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren Testu Bategina); D.3.a, D.3.b eta D.3.c (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.d (Mantentze-lanen erregistroa); D.3.g (Produktu kimikoak biltegiratzeko instalazioen ziurtagiria); D.3.h (Larrialdi-kasuetarako material-zerrenda); D.3.m (Suteen aurkako babesari buruzko egiaztagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako Ebazpen hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bostgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Fundiciones del Estanda SA enpresak Ebazpen honen xede den altzairu-galdaketako jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea Ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Fundiciones del Estanda SA enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Fundiciones del Estanda SAenpresari, Beasaingo Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuari, hilabeteko epean, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 25a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.